

2020ko otsailean, Euskal AEko esportazioak % 7,9 jaitsi dira, eta inportazioak % 13,6

Produktu energetikoek dute portaera negatiboa, bai esportazioei dagokienez, bai inportazioei dagokienez

Euskal AEko ondasunen esportazioek (1.902,3 milioi euro) % 7,9ko beherakada izan zuten otsailean aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Inportazioek (1.549,8 milioi) % 13,6 egin zuten behera aurreko urtearekin alderatuta. Merkataritza-saldoa positiboa da (352,5 milioi), eta 2019ko otsailean erregistratutakoa baino 80,6 milioi handiagoa.

Produktu energetikoak dira, aldiari behin izaten dituzten gorabeherekin, beherakada horiek zehazten dituztenak; hala, esportazioen kasuan, % 44,5eko atzerakada dago (55,1 milioi), eta energetikoak ez diren % 5,5eko jaitsierarekin batera (107,3 milioi), esportazioen galerak 162,4 milioiok dira azkenean.

Mota horretako produktuentzat inportatutakoaren eta esportatutakoaren artean dagoen harreman zuzenak azaltzen du inportazio energetikoek ere behera egin dutela, % 25,7 zehazki (123,6 milioi).

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Otsaila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Otsaila			Otsaila		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.064.707	1.902.315	-7,9	1.792.829	1.549.824	-13,6
PRODUKTU ENERGETIKOAK	123.943	68.849	-44,5	480.675	357.064	-25,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.940.764	1.833.467	-5,5	1.312.154	1.192.760	-9,1
URTEKO METATUA	4.006.146	3.870.877	-3,4	3.465.986	3.123.666	-9,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	188.393	284.128	50,8	920.840	798.577	-13,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.817.753	3.586.749	-6,1	2.545.146	2.325.089	-8,6
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	585.354	612.926	4,7	412.511	376.393	-8,8
URTEKO METATUA	1.218.868	1.229.405	0,9	744.111	700.949	-5,8
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	760.045	711.753	-6,4	1.024.066	834.137	-18,5
URTEKO METATUA	1.444.674	1.495.572	3,5	1.973.414	1.768.643	-10,4
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	719.307	577.637	-19,7	356.252	339.294	-4,8
URTEKO METATUA	1.342.604	1.145.900	-14,7	748.461	654.075	-12,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Gipuzkoan kontzentratzen da beherakada esportatzaile hori (-% 19,7), esportazio ez-energetikoek 141,7 milioiok beherakada izan baitute. Funtsean, kontzentratzen dira *Garraio-materialean* (-% 31,2, 54,6 milioi gutxiagorekin), *Material elektrikoan* (-% 22,0 eta 55,5 milioi gutxiago) eta *Metalak eta beren manufakturak* izenekoan (-% 15,4 eta 22,8 milioi gutxiago), hori guztia aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Esportazioak % 6,4 egin du behera Bizkaian, *Produktu mineral eta energetikoetan* % 42,0ko jaitsiera izan delako (-52,7 milioi gutxiago) eta *Material elektrikoan* % 19,2koa (22,2 milioi).

Araba, ordea, % 4,7 hazi da *Garraio-materialaren* hazkundeari esker (% 9,0 eta 30,4 milioi gehiago).

Otsailean bost herrialde (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) izan dira Euskal AEko bezero nagusiak, esportaturiko guztiaren % 50,9 (967 milioi) bereganatzen baitute. Horietatik hiru EB27koak dira, erakunde bat zeinek biltzen baitu esportatutakoaren % 63,3; ehuneko hori % 69,5ekoa izan litzakeke lehengo EB28rako.

Italiara eginiko esportazioak % 7,6 hazi dira, Alemaniara eginikoak % 7,4 eta Portugalera egindakoak % 3,3; halaz ere, Frantziara eginikoak % 15,0 jaitsi dira, nola Herbehereetara bideratuak ere, % 39,8 jaitsi baitira. Erresuma Batua egindako esportazioek ere behera egin dute, % 20,3 zehazki. Estatu Batuetarako salmentak % 10,4 jaitsi dira, eta Txinara (-% 7,8) eta Mexikora (-% 16,9) bideratuak ere.

Otsailean inportazioen erdiak EB27tik etorri dira, guztizkoaren % 53,3; ehuneko hori % 55,5ekoa izan litzateke desagerturiko EB28rako. Herrialde garrantzitsuenen artean Herbehereak nabarmendu dira (74,3 milioi), % 44,0ko hazkunderekin, eta, kontrako noranzkoan, Irlanda (43 milioi), % 33,7ko jaitsiera handiarekin. Otsailean munduko herrialdea nondik gehien inportatu baitugu Alemania izan da (249 milioi), eta herrialde horretara ere esportatu dugu gehien (341 milioi); beraz, herrialde horrekiko saldoa positiboa izan da hilabete horretan.

2020ko otsailean esportaturiko produktuak

Jarduera-adar esportatzaileak (A86) aztertuta, *Erabilera orokorreko makineria* % 16,7 jaitsi dira, eta *Siderurgiako produktuak* % 9,3; aldiz, *Ibilgailu motordunak* % 5,8 hazi dira, eta *Metalezko gaiak* % 3,7. *Kokeriak eta petrolio finntzea* deritzona % 30,6 jaitsi da, eta *Material elektrikoa* % 14,4.

Xehetasunetara jaitsiz, ikusten da ezen otsailean hamar muga-zergen partida nagusiek esportazioen % 42,2 bildu zituztela, guztira 801,9 milioi euroko balioarekin. Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, honako hauek nabarmentzen dira igoeretan: *Burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak* (% 34,7 eta 40,4 milioi), *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* (% 16,4 eta 203,6 milioi) eta *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (% 4,1eko hazkundera eta 126,6 milioi). Hala ere, portzentajeazko jaitsierak daude hauetan: *Petrolio-olio finnduak* (-% 25,4 eta 58,9 milioi), *Burdinazko edo altzairuzko profilak, aleatu gabeak* (-% 23,9 eta 34,4 milioi) eta *Eskuzko erremintatarako edo makina-erremintatarako tresna trukagarriak* (-% 17,6 eta 28,8 milioi).

Inportazioak jardueren arabera aztertuta (A86), ikusten da ezen garrantzitsuena, *Erauzketa-eta petrolio-industriak* (guztizkoaren % 20,9), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta % 25,9 jaitsi dela, nola halaber *Siderurgiako produktuak* (-% 27,9) eta *Erabilera orokorreko makineria* (-% 6,9); hala ere, *Motordun ibilgailuen fabrikazioa* % 0,9 hazi da. Hori guztia, lau adar garrantzitsuenak bakarrik kontuan hartuta.

Muga-zergen partiden kasuan, ikusten dugu ezen pisu espezifiko handiena duena, *Petrolioaren edo mineral bituminosen olio gordinak* deritzona (guztizkoaren % 20), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta % 12,9 jaitsi dela. Joera hori bera dute gainerako 10 muga-zergen partida nagusiek, bosgarren postuan denak izan ezik, *Soja babak, baita hautsiak ere* izenekoak, zeina inportaturiko 29,9 milioi euroekin % 37,5 hazi baita.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 747,2 milioi euroko saldo positiboa izan du 2020ko lehen bi hilabeteetan


Lehenengo bi hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioen kasuan, % 3,4ko beherakada erregistratu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, hau da, 135 milioi euro gutxiago. Aldi horretako

esportazioen zenbatekoa 3.870,9 milioikoa da, hau da, 747,2 milioi euroko merkataritza-saldoa, 2019ko aldi berean erregistratutakoa baino 207 milioi gehiago, eta estaldura-tasa % 123,9koa da.

Aldi horretarako, esportazioak 1.000 milioi eurotik gorakoak dira hiru lurraldeetan: Bizkaian 1.495,6 milioi, Araban 1.229,4 milioi eta Gipuzkoan 1.145,9 milioi. Gipuzkoak bakarrik egin du atzera, % 14,7, 196,7 milioi gutxiagorekin.

2020ko lehen bi hilabeteotako rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 18,0rekin. Alemaniaren atzetik Frantzia (% 16,4), Estatu Batuak (% 6,7) eta Erresuma Batua (% 6,3) daude, eta, horrela, lau herrialdeon artean aldi horretako Euskal AEko esportazioen ia % 50 biltzen dira.

Euskal AE osorako inportazioen metatua, aztertutako aldian, 3.123,7 milioi euro ingurukoa da. Kopuru horren urte arteko alderaketa eginez gero, ikus daiteke ezen 342,3 milioi gutxiago direla aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino.



Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62